

Urria

1



Okendo kaleko bulegoa.

**EGren egoitza berria Donostian.**

Urriaren 3an Euskal Gorrakek Donostiako egoitza berria zabaldu zuen, bertan Zeinu Hizkuntzako Interpreteen Zerbitzua (ZHIZ) eta Abian zerbitzua (Enplegua eta Prestakuntza) kokatuta daudela. Bulegoa hiriburuko Okendo 2, behea, kalean dago.

Zerbitzuak bulegoan bertan, 688 648 989 mobilera SMS idatziz edo [ils.gipuzkoa.eg@gmail.com](mailto:ils.gipuzkoa.eg@gmail.com) ala [abian.gipuzkoa@gmail.com](mailto:abian.gipuzkoa@gmail.com) helbideetara emaila bidaliz eskatu daitezke.

2



Ezkerretik eskuinera: José Ignacio Trancho (SOS Deiak), Benjamín Conde eta Álvaro Ortega (EG), Pedro Anitua (SOS Deiakeko Zuzendari Nagusia) eta Gaizka Etxabe (SOS Deiak).

**Bilera SOS Deiak-en.**

Urriaren 7an, Euskal Gorrakeko lantaldea SOS Deiak-eko Zuzendari Nagusiarekin eta Larrialdien Arretako Zuzendariarekin bildu zen, pertsona gorrei arreta emateko zerbitzuak dituen akatsez hitz egin eta entzumen-etzgaitasuna duten pertsonekin komunikatzeko sistema eraginkorra eskatzeko.

Bilboko SOS Deiak-eko egoitzan egindako bilera hartatik, pertsona gorrak larrialdietako sistemarekin modu irisgarrian komunikatu ahal izateko sistema berria abian jartzeko akordioa sortu zen.



Josune Albizua eta Álvaro Ortega.

### Josune Albizuaren bisita.

Urriaren 14an EAJko legebiltzarkide eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Batzordekide Josune Albizuak bisitatu gintuen. Euskal Gorrakeko presidentek gure egoitza erakutsi eta erakundeak nola funtzionatzen duen azaldu zion.

## Azaroa



Álvaro Ortega, Begoña Garamendi, Carmen Charo Nograro eta Aitor Bedialauneta.

### Bilera Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin.

Azaroaren 4an Euskal Gorrakeko presidente den Álvaro Ortega eta EGko Gazteen Batzordeko ordezkari Aitor Bedialauneta, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaria den Begoña Garamendi eta Carmen Charo Nograroekin bildu ziren pertsona gorren hezkuntzari buruzko zenbait gairi buruz solasteko.



Jaialdiaren kartela.

### Zeinu Hizkuntzako V Zinema Jaialdia.

Azaroaren 8an Gainditzenek (Tolosaldea-Goierriko Pertsona Gorren Elkarte) antolatutako Zeinu Hizkuntzako V Nazioarteko Zinema Jaialdia ospatu zen Leidor zinemaretoan. Horretaz gain, beste hainbat jarduera kultural ere gauzatu ziren.



Ezkerrean, Mónica Rodríguez hitzaldia eman bitartean.

### Hitzaldia Foru Liburutegian.

Azaroaren 12an CNSE Fundazioko Mónica Rodríguezek, Foru Liburutegiak Bilbon antolatutako Literatur eta Teknologia Berrien III Jardunaldietan hitzaldia eman zuen. Hitzaldia ONCE eta ASPACEko kideekin batera eman zuen eta teknologia berriek ezgaitasunak dituzten pertsonen literaturarako sarbide gisa duten garrantziaz mintzatu ziren.



Maitane Falagán ASSCko presidentearekin eta beste bi hizlariarekin.

### Hitzaldia Santander eta Kantabriako Pertsona Gorren Elkartean.

Azaroaren 15ean, larunbata, Euskal Gorrak Santander eta Kantabriako Pertsona Gorren Elkarteak antolatutako Gazteen Enplegurako II Jardunaldietan parte hartu zuen. Maitane Falagánek, Abianeko teknikariak, gure federazioaren Enplegu eta Prestakuntza zerbitzuaren funtzionamendua azaldu zuen.



Parte-hartzaileak Pombo sailburuordearekin Biltzarrean.

### CNSEko Presidenteentzako Biltzarra.

Azaroaren 21ean, ostirala, Bilbon CNSEko Presidenteentzako Biltzarra egin zen. Bertan Estatuko lurralde federazio eta elkarteetako ordezkari gorenak izan ziren. Topaketa Bizkaiko Foru Liburutegiko egoitzan egin zuten eta Gizarte Politiketako sailburua den Iñigo Pombok irekiera eman zion.



Argazkia Ahal-dun Nagusiarekin Foru Jauregiko eskaileretan.

### Harrera Bizkaiko Foru Jauregian.

CNSEko Presidenteentzako Biltzarraren baitan, Bizkaiko Ahal-dun Nagusiak, José Luis Bilbaok, eta Gizarte Ekintzako Foru Diputatuak, Pilar Ardanzak, parte-hartzaileei harrera-ekitaldia egin zieten.



Luis Cayo Félix Pinedori saria ematen.

## Pertsona Gorren Elkarte-sarearen Jardunaldiak eta Cermi.es sariak.

Azaroaren 22an, larunbatean, Euskal Gorrak antolatutako Euskadiko Pertsona Gorren Elkarte-sarearen II Jardunaldia izan zen eta 90 pertsona bertaratu ziren. Besteak beste, Estatuko lurralde-federazioetako 17 presidentek eta CNSEko presidentek, Concha Diezek, parte hartu zuten. Beste erkidegoetako elkarte-sarearen berri izateko aukera eman zuen mahai-inguruaz gain, Bizkaiko Foru Aldundiko Sergio Murillok ere hitza hartu eta Aldundiak

ezgaitasuna duten pertsoneri ematen dien arretaz mintzatu zen. CNSE Fundazioko Jorge Sánchezek, bere aldetik, SVisual zerbitzua azaldu zigun eta Alfredo Gómezek, FAASEko presidente eta EUDko kideak, Europako elkartegintzaren gaineko hitzaldia eman zuen.

Jardunaldiak bukatuta, CERMIko Presidente den Luis Cayok, CERMI.es Saria eman zion CNSEko Ohorezko presidente Félix Pinedori, persona gorren alde egindako lana eta kolektiboaren mesederako erdietsitako eskubideen lorpena aitortu nahian.

Azkenik, nabarmentzekoa da jardunaldietara bertaraturako elkartegintzako kide gailenen partehartzea, hala nola, Fernando Pascual, Carmen Igal eta Jesús Ayerra. Sari-banaketan Félix Pinedoren ondoan egoteaz gain, jardunaldian parte hartu zuten pertsoneri ere bi hitz zuzendu nahi izan zieten.

## Abendua



EGko presidentea Aburto sailburuaren ondoan jesarrita.

## Ezgaitasuna duten pertsonen Nazioarteko Eguna.

Urtero bezala, abenduaren 3an, asteazkena, Fekoorek Bilboko Areatzan antolatutako ezgaitasuna duten pertsonen Nazioarteko Egunaren ospakizuna izan zen. Euskal Gorrak ordezkaritza gisa Álvaro Ortega presidentek hartu zuen parte.



Álvaro Ortega Izaskun Bilbaorekin.

## Izaskun Bilbaoren bisita.

Abenduaren 5ean EAJko europarlamentaria den Izaskun Bilbaok EGko egoitza bisitatu zuen. Ondoren, Álvaro Ortega Euskal Gorrak presidentearekin batzartu zen.



### Elkarrizketa Euskadi Irratian.



Abenduaren 15ean Euskadi Irratiko "Hiri Gorrian" irratsaioan Euskal Gorrakeko presidentea elkarrizketatu zuten. Bertan pertsona gorrek euren egunerokotasunean bizi duten egoera eta aurre egin behar duten komunikazio oztopoak zehaztasunez azaldu ahal izan zituen.



### Lehendakariaren Harrera.

Abenduaren 23an Euskal Gorrakeko presidentek eta diruzainak, Lehendakariaren Vitoria-Gasteizeko egoitzan, Iñigo Urkullu Lehendakariak euskal gizarteari eskainitako harreran parte hartu zuten.

Álvaro Ortega eta Ritxar Pérez Iñigo Urkullu Lehendakariarekin.



**EUSKAL GORRAK**  
 Pertsona Gorren Elkartearen Euskal Federazioa

k/ Hurtado Amézaga 27 – 6. pisua  
 48008 Bilbo  
 Tel.: 944 765 052 / 637 861 920  
 Emaila: euskalgorrak@gmail.com

# Euskal Gorrak ibili badabil !!

## Urria

Urriak 3

EGren Donostiako egoitza berria zabaltzea.

Urriak 3

Euskal Gorrakeko Zuzendaritza Batzordearen bilera.

Urriak 4

Euskal Gorrakeko Presidenteentzako Biltzarren bilera.

Urriak 7

Bilera SOS Deiak-eko Zuzendari Nagusiarekin.

Urriak 14

Josune Albizuaren legebiltzarkidearen bisita.

Urriak 23

Bilera Iñigo Pombo Gizarte Politiketako sailburuordearekin.

Urriak 31

EcA Foroak antolatutako ekitaldian parte hartu.

## Azaroa

Azaroak 4

Bilera Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin.

Azaroak 12

CNSE Fundazioak Bizkaiko Foru Liburutegian eskainitako hitzaldian parte hartu.

Azaroak 15

Santanderreko Gazteen Enplegurako II Jardunaldian emandako hitzaldia.

Azaroak 18

Eusko Jaurlaritzako Entzuteko Ezgaitasuna duten Ikasleen Eskolatzearen Jarraipen Batzordean parte hartu.

Azaroak 19

Bilera Coorvisor-ekin.

Azaroak 21

CNSEko Presidenteentzako Biltzarrean parte hartu.

Azaroak 21

José Luís Bilbaoren Harrera Foru Jauregian.

Azaroak 22

Euskadiko Pertsona Gorren Elkarte-Sarearen II Jardunaldiak .

## Abenduak 1

Bilera Arartekoaren lantaldearekin Hezkuntzan interprete faltagatik kudeatutako helegiteen jarraipena egiteko.

## Abenduak 3

Ezgaitasuna duten pertsonen Nazioarteko Egunaren ospakizunean parte hartu.

## Abenduak 5

Izaskun Bilbao EAJko europarlamentariaren bisita.

## Abenduak 6

Gizardatzek antolatutako gardentasunaren gaineko jardunaldian parte hartu.

## Abenduak 11

CNSE Fundazioaren Patronatuaren bilera Madrilen.

## Abenduak 12

Euskal Gorrakeko Zuzendaritza Batzordearen bilera.

## Abenduak 13

Euskal Gorrakeko Presidenteentzako Biltzarraren bilera.

## Abenduak 15

Álvaro Ortegaren elkarrizketa Euskadi Irratian.

## Abenduak 16

Ezgaitasuna duten pertsonentzako sistema arbitralaren gaineko ikastaroan parte hartu.

## Abenduak 17

Bilera Bizkaiko Foru Aldundiko Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zuzendari Nagusia den Sergio Murilloarekin.

## Abenduak 19

Bilera SOS Deiak-en

## Abenduak 23

Iñigo Urkullu Lehendakariak eskainitako harrera ofizialean parte hartu.